

www.noaia.com

Noaia !!



Azaroaren 5ean zabalduko da
Sutegi Kultur Etxe berria



Mila Buldain beti izango da

Zubietako andereño

Oliba Olio Kosmetika Naturala

lixoné
Cosmética Natural



Gipuzkoan egindako produktuak Alkartasuna kooperatiban zure eskura

- Oliba olioz eginiko produktuak:**
- * Xanpua
 - * Gela
 - * Ile egokitzailea
 - * Esku eta azazkalentzako crema
 - * Gorputzerako Crema
 - * Jaboa
 - * After Suna
 - * Belzteko crema intentsiboa
 - * Belzteko crema protekziodunak

- Oliba olio birjin-extraz eginiko produktuak:**
- * Crema hidratantea
 - * Zimurren kontrako crema

Alkartasuna
Nekazar kooperatiba elkarte

Ugarte Industrialdea 12
Tinoa. / Faxa: 943 361 114
21070 USURBIL Gipuzkoa
alkartasuna@usurbil.com

Txirrikitutik !!

Duela 40 urte inguru ateratako argazki honetan, Santixabeletan eta gainontzeko auzoetako jaietan askotan ikusi izan dugun ohitura zaharretako bat ageri da: sokamuturra. Zer den sokamuturra? Jolas bat; bigantxa edo zezenko bati lepotik soka luze bat lotzen zaio, eta horrela animalia harantz eta honantz aske ibiltzen da itxuratik irten gabe jendea berarekin jolasten duen bitartean. Argazkian ikusten duzuen moduan, herriko dema plaza jendez gainezka dago, erdian dagoen zezenari adi-adi begira. Zezenarekin batera zenbait gazte ausart bere inguruan korrika dabilta, toreroek erabiltzen duten kapote eta guzti. Salvatore elizako balkoian ere ez da jendea falta, herriko hainbat neskatxa gazte ikuskizunari begira baitaude. Arrueneaberri etxeko balkoiak eta leihoak ere ez daude hutsik. Zenbat zilipurdi eta salto ikusi ote zituzten bertaratu ziren guztiek?

Zalao Arnaiz Iburguren

Argazkiaren egilea ezezaguna, 60. hamarkada, Kaleberri Jabetza: A.I.



Noaua!!

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Publizitatea: Maider Alustiza, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Donostiako Antigua auzoan bizi da Mila Buldain.

Aurkibidea

IDOIA TORREGARAIEN ANALISIA **4. ORR.**

KRONISTAK, KALEJIRAN **10. ORR.**

KULTUR ETXE BERRIA **11. ORR.**

Iritsi da eguna. Azaroaren 5ean irekiko dira Sutegi Kultur Etxe berriko ateak. Azaroaren 7tik aurrera, beraz, udal liburutegia ere martxan izango da.



MILA BULDAINEKIN SOLASEAN **12. ORR.**

BATZARRA ANTOLATU DU BATASUNAK **13. ORR.**

OLATZ ALTUNA, 18/98 ENDREDUAN **14. ORR.**

KULTUR ASTEAREN XEHETASUNAK **16. ORR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

Zutabea !!



IDOIA TORREGARAI

Ilargian egon

Pozez gurutzatu nuen Hondarribiko aireportuko irteerako atea, hegaldiko azken ordu laurdena turbulenzien menpe egon ondoren. Bestekaldean nituen lagunak zain, kamaraderia zintzoak (eta nire lo aurpegiak) eskatzen duen irribarre zabalarekin. Bigarren aldiz etxean nengo.

Aireportuekin dudak erlazioa berezia dela iruditzen zait. Bertara iristean normalean ilargian egongo banintz bezala sentitzen naiz; ez guztiz despistatzen naizelako (batzuetan gertatzen zait, ezin ukatu), baizik eta "inoren lurrean" egotea bezalakoa delako.

Batetik, aireportuak ez du herritartasunik; guztiok gara atzerritarrek bertan; guztiok erakutsi behar izaten dugu identifikatzen gaituen dokumenturen bat. Horrek jadanik beste herri batean zaudenaren sentsazioa ematen dit, nahiz eta Loiu egon.

Bestetik, aireportu batean inon baino hizkuntza, kultura eta arraza desberdin gehiago biltzen dira. Ez dut esan nahi, demagun, San Ferminetan kanpotar piloak ez dagoenik, baina aireportu batean Australiarrez gain, beste tokietako pertsonak inon baino gehiago kontzentratzen dira. Lurraz haratago dagoen pasoko estazio baten itxura hartzen du horrela.

Azkenik, aireportuen itxura ere mundu honetakoa ez dela ematen du. Lehenengo, NASAko instalazioetan baino pantaila gehiagoren artean zure hegaldia topatu behar duzu (Y9BA7H bezalako izenek ere ez dute asko laguntzen). Eta behin hartu behar duzun bidea jakinda, gutxienez GPSa behar duzu hainbeste korridore, pasillo eta aterren artean zurea topatzeko.

Horregatik, Hondarribiko aireportuko irteerako atea gurutzatu ondoren, bigarren aldiz sentitu nintzen etxean.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Eskerrik asko odol emaile guztiei

Urriaren 23an, odol emaileok elkartasun eguna ospatu genuen Gipuzkoa osoan, bailaraz bailara. Oria beheko bailarakoena Andoaingo ordezkariak antolatu zuen.

Lehen ekitaldia Andoaingo Bastero erakundearen egin zen. Herriko dantzari eta txistulariekin eta auresku batekin hartu gintuzten. Jarraian, Andoaingo ordezkariak, alkateak eta Odol Bankuko zuzendariak ongi etorria adierazi ziguten. Aipatu zuten, besteak beste, ekintza honetan bolondresak beharrezkoak direla, kalitatea eskaintzeko gaixoei, oraingo ezin dela odola makina bidez lortu, eta gaixo guz-

tien izenean odol emaile guztiei eskerrak eman eta bide honetatik lanean jarraitzeko animoak eman zizkiguten. Odol emaile izandakoak gogora ekarri zituzten, txistularien doinuekin, eta ikur diplomak banaketa egin zen. Txistulariek eman zioten amaiera ekitaldiari "Agur Jaunak" abestiaren doinuekin.

Irteeran, "Leyçaur" bildumako liburu bana eskeini zigun Andoaingo Udalak.

Bigarren zatia Urrietako Oianume jate-txean egin genuen, otordu eder eta solasaldi alai batek elkartzen gintuztelarik. Bertan, ikurra jasotzera hurbildu ziren odol emaileek beste oparitxo bana jaso

zuten Andoaingo Udalaren izenean. Ia 200 adiskide ginen eta gustura igarotzen genuen eguna.

Eskertzeko Andoaingo Udalak eta bertako Odol Emaileen Ordezkariak antolatu zuen eguna. Gaixok sendatzean konaturatzen gara gure ahalegina premiazkoa dela, eta honelako egunak gure animoak berpizten laguntzen dutela. Eskerrik asko odol emaile guztiei.

Gogoan izan hurrengo odol ematea azaroaren 7an izango dela, Usurbilen.

Usurbilgo Odol Emaileak

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Industri eta Iragarki
**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**
KRMUSSTEN IMPRIMERIA
OSU
943 371 954
UGALDEA POL.35-2-USBIL

LATXA
kateak denda
Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktuak
Eskertzen zaituzte
Tel. 606 201 803

www.noaua.com
USBILGO ATARIA

Ika-mika !!

Fantasiak eta gezurrak (II)

Elkarrizketaren ukazioa udal gobernuaren ezaugarrietako bat dela diote udal langile gutxi batzuk, behin eta berriro, ez direla bilerak egiten. Hori horrela bada, nola izan liteke posible Usurbilgo Udalan, 2004ko konbenioa sinatu ahal izatea? Nola lortu zen hori Usurbilen konfliktorik gabe inguruko herrietan grebak eta mobilizazioak izan zirenean? Erantzuna erraza da: Alkateak elkarrizketarako duen gaitasunarekin.

NOAUAKO urriaren 7ko Ika-mikan, eta urriaren 11an, Diario Vasco-n argitaratu zen idatzi berebean, aurtengo soldaten igoerari buruz eginiko plenoaren ondoren (Uztailak 26) Alkateak ez duela hitz egin nahi izan esaten da. Gezurra. Abuztuaren 24an langileen ordezkariak alkatearekin bilera izan zuten. Bertan, soldata igoera sindikatuek eta EUDEL arteko negoziazioaren baitan zegoela adierazi zien, berriro. Entzun nahi ez dutena entzutea eta hitz egin nahi ez izatea bi gauza oso ezberdinak dira.

Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Are gehiago. Bilera horretan, Alkateak, egin zaizkion akusazio larri batzuetaz hitz egin nahi zuen: zenbait langile eraso zituela eta jazarpen egoeran zituela. Jakin nahi zuen nor izan zen kalte-tua, zertan, non, noiz gertatu zen egoera. Langileen ordezkarien erantzuna: "ez dizugu informaziorik emango. Etorkizunean eman litezkeen prozedura judizialtan gure kalterako litzateke eta gainera langileen aurka errepresaliak har ditzazkezu". Nork ez du hitz egin nahi?

Nola har litzake neurriak Alkateak balizko gertaera kondenagarri horien aurrean ez baldin bazaizkio adierazten beharrezkoak dituen datuak? Zertan gabilta jolasean? Fantasiarekin? Intentzio txarrarekin?

Dena den, alkateak neurriak hartzen hasi da, eta egun gutxi barru, eraso morala edo "mobbing"-a deritzaionaren aurka "aktuzio prozedura" aurkeztuko du onar dadin.

Amaitzeko. NOAUAREN 214. alean berriro ere datu estadistikoak azaltzen

dizkigute langileen ordezkariak. Oraingoan ere, aurreko legealdiko garai hobeak gogoratu. Pertsonal batzorde informatzaile gutxi egiten omen ditugu. Ea akklaritzen garen. Alde batetik akusatzten dute bileretara joateagatik gehiegi kobratzen dutela zinegotziek, eta bestetik bilera gutxiegi egiten dituztela, eta errealitatea da Udala funtzionatzen ari dela. Udalari merkeago ateratzen zaio zinegotziak bilera mordo bat egiten ibiltzea baino bilera askoz ere gutxiago egitea nahiz eta bilera bakoitzeko gehixeago kobratu.

Matematika pixka bat. Aurreko legealdian: 15 bilera urteko X 31,85 euro bilera bakoitzeko = 477,75 euro zinegotzi bakoitzeko. Legealdi honetan: 4 bilera urteko X 50 euro bilera bakoitzeko = 200 euro zinegotzi bakoitzeko.

Ez alferkeria, ez egoskorakeria. Efikazia!

Usurbilgo Eusko Alkartasuna (EA)

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: azaroak 18. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 11.

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 361 106

Uemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

piñtxoak
ogitartekoak
piñter konbinatuak **TABERNA**

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

PATRI JATETXEA

943 362 725

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

Knk l

- l n z r
G z n z k n r r p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
uzun k

Zubiaurrena, 3 33 17 7

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Santuenekoak txapeldun

Erroizpe elkarteko 50 urtemuga ospatzeko, urriaren 22an mus txapelketa jokatu zen elkartean. Txapelketa Santuenetik etorritako bikote bitxi batek irabazi zuen: Enrike Ulik eta Felix Jimenezek osatua hain zuzen. Bata partaide zaharrena izan zelako eta bestea berriz gazteenetakoa. Esan behar ezin hobeto moldatu zirela txapela eta arkumea irabazteko. Lau partida jokatu behar izan zituzten, eta denak emaitza berdinarekin bukatu: 4-0 alegia. *A ze paraa! Etorriya dela, ez dela, ez zen giro izan horien aurka!* Bigarren sariko mariskada Ion Lopez eta Arkaitz Martiarena gazteek eskuratu zuten. Hirugarren eta laugarren sariko haragia berriz, Angel Matxain eta Rufino Izagirre kalezartarrek, Iñaki Errekondo eta Juantxo Padrones kaleberritarrekin banatu zuten. Etxekoak segituan kanporatuak izan ginen. Ez da harritzekoa, elkartean aspaldidanik ez baitago kartetarako joerarik. Garai batean bai, bazkide asko ibiltzen zen egunero musean. Horren adierazle duela berrogei bat urte, elkartean



bazkideentzako antolatutako txapelketan, hamahiru bikotek eman zuten izena muserako eta hamarrek tuterako. Guk ere mutil koxkorretan, zenbat partida ikusiak ote gara zeharo txundituta geure maisuei begira.

Biharamunean, urriaren 23an ospakizunak bukatzeko mendi martxa zegoen iragarrita. Ospakizun ekitaldi hauek bizitazuna eman diote auzoari eta giro berezia sortu dute.

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Egun arrakastatsua Basaurin

Urriaren 23an IV. Elkartasuna Etorkizuna jai ospatu zen Basaurin (Bizkaia). 400 pertsona inguru bildu zen jaietan eta gainera, giro ederrean. Lehenik eta behin, kalerik kale kalejira koloretsu bat egin zen: Baigorriko dantza taldea, Tuterako zarpantzararak, Ezpeletako txaranga, Ablitasko dantzariak, Urdiñarbeko dantzariak eta xirulariak, Basauriko trikitilari eta txistulariak, Añanako gaiteroak eta Usurbilgo albokariak. Beraz, oihartzun handia sentitu zen kaleetan zehar.

Eguerdiko herri bazkariaren ondoren, herrialde bakoitzeko ordezkariak batek kultur eskaintza egin zuen, baita Basauriko elkartearen eskutik oroigarri bana jaso ere. Une hunkigarriak bizi izan ziren eta urtean zehar alderik aldeko kilometro luzeak gertu gelditu ziren: dantza, kanta saioa, solasaldia... Elkar ezagutzeko beste aukera berri bat.



Orain, urte guztian sendotzeko baliogarri suerta dadila.

Alazne eta Eli, Oskar Angulo eta Arrona eta Gaztelumendi anaiek bertsoa eta musika tresnak nahasiz sormen lan ederra egin zuten.

Haizia kalian eta ibili aidian!

Kaixo denoi, auzotar, herritar, zahar eta gazteoi! Gaitzerdi kalean bakarrik izango balitz baina, bai zera, bart gauean ederki dantzatu ditu bazterrak gurean behintzat!

Egun hauetan dabilkigun hego haize ero honek onik ez duela entzuten ari naiz hanhemenka baina, egoskorra izan ni eta hori horrela ote den aztertzen ibili naiz.

Ikerturiko lehenengoaren ustetan, ikaragarri txarra omen da hego haize zikin hau; hezurretako mina besterik ez omen du ekartzen. Bigarrenaren ustetan ere, ezer onik ez omen du ekartzen, baina aurrean harrapatzen duen gutzia eraman bai; zuhaitzetako hostoak eta arbasak, buru gaintako pelukak... Hori bai, gustuko ez dituenak, aurrerago eraman eta bazterrean botata uzten omen ditu, lotsagabeak. Hirugarrenak ere, ez du ba aldeko boturik ematen;

tentsioa oineko behatz puntaraino jeisten omen dio eta gero hura gora ekarri arazten lanak! Laugarrenak ere nahikoa komeria ibiltzen dituela uste dut; haizeak hego aldera begira jartzen omen du bera, erabat nortea galdua. Bostgarrenak, eta azkenak, berriz, ez omen du batere gustuko zeren eskaxa sentitu arazten omen dio; ezer egin ez eta norbaitek zaplaztekoa eman balio bezala kao uzten omen du erabat abailduta.

Noski, hauek denak entzun eta aztertu ondoren, ezingo naiz ba ni ona dela esanez auzoan ibili! Ba bai, topatu baitut beraren alderdi ona ere; ganbarako babarrunak lehortu eta ondoren haizeztatzeko, primerakua.

Ez da txarrik, onik ez duenik! Aio eta ondo izan!

Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Haizeak naramala

Beldurtzen hasi behar ote dudan galdetzen diot neure buruari. Segapotoaren iratzargailuari esker esnatu naiz gaur goizean, bart argia joan ondoren sumatu bainuen berriro ere joango zela. Egia esan ez dakit zenbat aldiz joan den gauean, baina bizpahiru aldiz seguru, etxe-ko ordulari guztiek zenbakiak dar-dar batean baitzituzten.

Ez dakit "Rita", "Willma" edo "Pepita" izango zen, baina goizeko seiak aldean ia hegaz eraman nau tren geltokiraino. Ederra marka. Auzoko birziklapen kontainerrak atzekoz aurrera utzi ditu, zabaldutako arropak leihotatik urrun eta ni beldurtuta, noski.

Esango duzue: udazkenean gaude, normala da haize pixka bat altxatzea! Eta nik diot: Bai, normala, baina haize tropikala izango da, arratsaldeko zortzietan hogeita sei gradu egiten baitzuten. Zuhaitzen adarrak, teilatuak, ezer ez da salbatzen. Zer egingo ote dute katuek honen aurrean? Egia esan, ez dakit, baina ez nuke nahi euren lepoan egon.



Ez dakit zortez ala zoritxarrez izango den, ezin ukatu, ordea, horrelakoetara ohituta ez gaudenik. Eta eskerrak ez dela gehiago izan! Ezer ez duten tokietan onetik gutxiago eta txarretik gehiago baitute beti, eta bi egunetako haize bolada batekin auzoa hankaz gora jartzen zaigu. Ni naiz lehenengo larritzen, gainera. Ezin dugu kexatu.

Atxegalde



NEREA
KORTA



AGUSTIN
ESNAOLA

Santuenea

Auzoko itxurari buruz, hausnarketa

Auzoko etxebizitza batean, 28 zenbakia Aduen etxebizitzan margoketa-lanak egin dituzte. Esan behar dut gustatzen zaidala emaitza. Etxeari aurpegia garbitu diote eta berria bezala geratu da. Nire iritziz, kolore xoxuak aukeratu dituzte, baina aitortzen dut, ez dela erraza etxe handi bateko koloreak aukeratzea eta aukeraketa horretan ausarta izatea. Zaila da, batik bat bizilagun asko ados jarri behar diren. Hala eta guztiz ere, emaitza ona da eta pozgarria da auzo guztiaren onerako delako.

Auzoak behar ditu horrelako apainketak. Beste hainbat etxebizitza beharrean daudela esango nuke ere. Beste etxe askori pintura pixka batek, aldaketa handia eta ona suposatuko lioke. Auzoan dauden eraikinak nahikoa zaharrak geratu dira, baina apainketa bat eginez gero beste itxura bat izango lukete, beste aurpegi bat azalduko lieke auzoak. Nik uste dut, gure auzoan etxeak margotuko balira, beste auzo baten

itxura emango lukeela. Eta ausartuko baginateke kolore pixka bat ematen margotzeko garaian, are eta gehiago. Ausardiak ez du esan nahi erokeria, baina ausardian bai eduki behar dugula kontuan itxura eta iraunkortasuna.

Erraza da esatea, baina zailagoa da bizilagunak adostea eta dirua gastatzeko gogoia edukitzea. Ulertzen dut, ahalegin bat dela bakoitzaren poltsikorako, baina merezi duela ere, ziur nago. Auzoaren onerako eta baita Usurbilen onerako dela iruditzen zait. Denok osatzen dugu herria eta denon ardura da, gure herria apaindu edukitzearena, baita udalarena ere. Ez al litzake udaletxearen laguntza batekin, etxebizitzaren aurpegiak txukuntzeko, auzotarrak animatzea egokia izango?

28 zenbakiko etxebizitzako bizilagunak kontuan harturik eta bere esfortzua eskertuz, auzotarrok, berdin egitera animatzen zaituztet.



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Argiztapen kontuak

Orain dela hilabete batzuk, auzotar guztiak poz galanta hartu genuen, urte askotan zehar eginiko eskaria azkenik bete ikusi genuelako. Orduan izan zen, negua has-tear zela, arrats ilun horietako batean azkenik errepideko argiak piztu baitziren.

Ordurarte, eta neguan batez ere, beldurgarria eta arriskutsua egiten zen eguzkia ezkutatutik ondoren San Esteban auzora igotzea. Baina, zortez, gaur egun ez dugu arazo hori, eta eskertzekoa da. Hala ere, geratzen dira (edo ziren esan behar, akaso) hau baino beldur gehiago sortarazten duten bide zatiak ere badi-rela.

Hauetako bat da, esaterako, Txokoaldera jaisteko bidea. Kurba kurbaren atzetik, eta zokotik zokora doan bide honek, iluntzean kobazulo itxura hartzen du, eta ez dira gutxi

izaten hemen hartzen ditugun sustoak.

Baina hau ere laster bukatuko da, izan ere, denbora gutxi barru hasiko dira zati honetan ere argiztapena jartzeko lanak. Horrela, gaur egungo argiztapena, Berritza Goienetik gora dagoen autobusaren geltokira arte iristen bazen, lanak amaitu ondoren Zabalea inguratuz doan bidean ere argia izango dugu, Gilisagasti aurretik igaroz, eta hainbat gira-bira ondoren Txokoalderaino iritsiko dena. Eta hau pozgarria da, batez ere auzokoentzat, eta baita bertatik igaroko diren guztientzat ere.

Hau ikusirik, eta beti eskatzeko zerbait eskatzeko dagoenez, zain egongo gara argiztapena San Estebango ermitara iritsi arte, gaur egun zati ilunak arriskutsuak bihurtu baitira.

Santu Guztiak gainean

Aurtengo festak ere bukatu dira eta lehen-ago urtean arazoak izan baziren ere, aurtengoan ez da horrelakorik gertatu, eta txalotzekoa da. Zer ikusi eta entzun izan dugu, gazte ugari oilasko biltzaileen egunean eta giro ederrarekin.

Pilota partidetan, tokan eta tiro platoan ere jende ugari bildu zen. San Praixku eguna ere ondo ospatzeko aukera polita izan zuten gure helduek, meza ederra entzun eta gero hamaiketako Aginaga Sagardotegian.

Mus txapelketa izan zen jende asko bildu zuen ekitaldietako bat. Bertan izan ziren hogeita eta hamairu bikote jo eta su musean jokatzeko.

Auzotarren arteko herri kirolek ikuskizun atsegina eskaini ziguten. Gazteak eta helduak ere aritu ziren lokotx biltzen, trontzan, txinge-

tan, artoa aletzen eta kixkiarekin sagar biltzen.

Umeen egunean bildutako ume guztiak ere gustura ibili ziren Pirritx eta Porrotx pailazoe-kin, buru handiekin eta ondoren txokolate eta bizkotxoekin.

Azken igandean izan genituen aizkolari eta harri-jasotzaileak. Hauek beraien erakustaldi bikaina eskeini ziguten. Ondoren bertsolariak izan genituen eta festen bukaera ere bai. Ume, gazte eta helduentzat, denentzat izan da aukera ondo pasatzeko.

Bestalde eta gaiaz aldatuz, Santu Guztien Eguna pasa berri dugun honetan kanposantuko lanak ere aipatu nahi nituzke. Denei gustatzen zaigu aurretik joan zaizkigunak gogan ditugula, egun honetan hilerria txukun ikustea eta honek aurretik lan pixka bet egitea eskatzen du.

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Mila

Urte asko pasa dituzu gure artean, andereño Mila. Urte asko, urte gutxikoen artean. Urteotan, beste inork baino hobeto ezagutu duzu zubietarron halabeharra: gazteak herritik kanpora bizitzera joan beharra, eta haur eskasia eskolan. Etengabeko kinkan aritu zara: delegazioa behin eta berriz ultimatimak ematen, eta zu berriz nondik edo handik haurrak eskola txikira erakartzen. Zenbat estutasun eskolari bizirik eusteko! Eta, orain, herria hazi denean, eskolara haur gehiago hurbiltzen hasi denean, adio esateko ordua iritsi zaizu. Lanak ondo eginda zoaz, eta lekukoa esku onetan utzita.

Igandean, guraso batzuei esker, aukera izan genuen zubietarrok gure esker ona adierazteko. Eskerrak eman nahi genizkizun egin duzun lan bikainagatik. Eskerrak, erakutsi duzun jatortasunagatik. Eskerrak, haurrak herrian murgilarazten eta herrirako hezten saiatu zarela. Eskerrak, azken batean, eskolako andereñoa ez



ezik, herriko andereñoa izan zaitugulako.

Igandean, zubietar asko Oiartzunen izan ginen errebote finala ikusten. Donibane Lohizuneko Luzaz Gaztek eta Billabonak jokatu zuten, eta Luzaz Gaztek irabazi zuen aise. Zuri ere horixe opa dizugu, Mila: segi dezazula luzaz gazte!

Zubietar



**XABIER
ARREGI**

Azaroaren 5ean zabalduko da Sutegi Kultur Etxea

Hainbatetan iragarri eta beste hainbestetan atzeratu ondoren, azaroaren 5ean irekiko dira kultur etxe berriko ateak. Eraikin berriaren xehetasunak eman dizkigu Luismari Ormaetxea alkateak. Bide batez, pil-pilean diren beste hainbat kontu aztertu ditugu elkarrizketa honetan.

NOAUA. Zergatik atzeratu da hainbeste Sutegi Kultur Etxearen irekitzea?

Luismari Ormaetxea. Oinarrian, Amenabar enpresa eraikitzailea, obra atzeratzen joan delako.

Obra zuzendariak, udaletxeak kontratatutakoa, bisita egiten zuenean ikusten zuen obra motel samar zihoala. Amenabarren iritziz, lizitatu zen aurrekontuarekin ezin zen obra gauzatu. Eztabaida luze baten ondorioz, 2004ko ekainean hitzarmen berria sinatu genuen Amenabarrekin. 2004ko abenduaren 1erako Amenabarrek lanak bukatu eta giltzak entregatuko zizkigula adostu genuen. Abendua iritsi zen eta obra bukatu gabe zegoen. Aurtengo urtarrila, otsaila... eta gauzak berdin-berdin. Beti zeuden arazoak, aitzakiak, atzerapenak...

Martxoan, Amenabarrek ziria sartzen ari zitzaigula ikusirik, obra guk hartzea erabaki genuen. Eraikinean sartu ginenean, dena oso berde ikusi genuen.

Udal brigadaren bitartez eta beste enpresa batzuk kontratatuz, obra bukatzeari ekin genion. Azpiko solairuan arazo larriak aurkitu genituen. Itoginak zeuden.

Bizilagunekin ere arazoak izan ditu enpresa honek, Paris etxekoekin eta Aritzetakoeekin. Udaletxeak ahalegin guztiak egingo ditu bizilagunek kalte-ordaina jaso dezaten.

Azaroaren 5ean zabalduko ditugu ateak. Horrelakoetan gertatu ohi den bezala, ez da %100ean bukatuta izango, detaile bat edo beste faltako da, baina irekitzeko momentua dela iruditzen zaigu. Azaroa kulturalki emankorra da eta horrelako azpiegitura ezin erabiltzea luxua litzateke.

N. Nolakoa izango da inaugurazioa?

L. O. Ekitaldi xumea izango da. Ez dugu Diputatu Nagusia edo antzekorik



AZAROAREN 7AN LIBURUTEGIA IREKITA EGONGO DELA ADIERAZI DIGU LUISMARI ORMAETXEAK.

ekarriko. Aurreko alkatea bai gonbidatu dudala inaugurazio ekitaldira.

Bi hitz izango dira, ekitaldi sinboliko bat. Bertaratzen den jendea protagonista izatea nahi dut. Gora eta behera ibiltzeko aukera izango dute. Solairu bakoitzean langileak eta politikoak izango gara areto bakoitzaren erabilgarritasuna azalduz. Hamaiketako kokkor bat ere izango da, dantzariak, musika pixka bat... Hori dena azaroaren 5ean, eguerdiko 12:00etan. Azaroaren 7tik aurrera, liburutegia behintzat martxan izango da.

Aurrekontu berriak

N. Aurrekontuak prestatzeko garaia da. Zeintzuk izango dira aurrekontu berrien ildo nagusiak?

L. O. 2005eko aurrekontuan adostutakoa osatzera etorriko da 2006koa. 2005ekoan, bi urte hauetan egingo diren obra nagusiak finkatu ziren: Kale Nagusia, Eguzkitza auzoa berritzea, Harane futbol zelai berria, Agerialdeko gelen zabaltzea...

N. 2005ekoan, udal teknikarien txostenak kontrakoak izan ziren. Alderdien arteko ika-mika ere piztu zen.

L. O. 2005 eta 2006rako egitasmoak finkatu genituen aurtengo aurrekontuekin. Beraz, aurrekontu berria adostea askoz errazagoa izango da. Iaz, EAJrekin oinarritzko akordio batera iritsi ginen.

Ardatzak finkatuta daudenez, EAJrekin adostasun batera iristeko asmoa dugu eta trabarik ez dela izango uste dut.

Atallu industrialdea

N. Atallu industrialdeko lanak geldidaude. Zer dela eta?

L. O. Laster jasoko dugu Atalluko urbanizazioa. Udal teknikariak eta urbanizazioa egin duen enpresak Atallu bisitatzen izan berri dira. Enpresa eraikitzaileak uste du bukatuta dagoela urbanizazioa baina neurri zuzentzaile batzuk proposatu dira: parkea erabilgarri entregatu behar digutela uste dugu eta beste hainbat kontu ere argitu behar dira. Hala ere, urbanizazioa ia bukatuta dagoela esan daiteke.

Enpresek ez dituztela pabilioiak altxatzen? Enpresa bakoitzak erabaki beharreko kontua da hori. Hori jada ez dago gure esku. Guiforrek, adibidez, pabilioia eraikitzen hasteko baimena eskatu berri du, besteak, epe laburrean eskatzen joango dira.

Udalak, ordea, 6. unitatean badu zeresanik. Unitate horretako pabilioi hori Ugartondo zonaldea garatzeko erabili zen. Udalarekin hitzarmena sinatu duen enpresak 14 hilabeteko epea du Atalluko pabilioi hori eraikitzeko. Orduan, orain Ugartondon dauden enpresak trasladatuko dira hara (tartean, udal brigadak).

** (Ugartondo eta Ugarteri buruzko adierazpenak datorren alerako utzi ditugu).*

Etxebizitzaren zozketak, legealdia amaitu baino lehen

NOAUA. Olarriondoko etxebizitzaren zozketa 2005eko amaieran egingo zela esan zenuen iaz. Zertan dira gauzak?

Luismari Ormaetxea. Olarriondon hainbat betekizun osatu behar dira. Arau subsidiarioetan jaso (hori egingo da) eta Plan Partziala egin (prozedura hau amaitzeko da). Jarraian, birbanaketa proiektua eta ondoren urbanizazio proiektua. Pauso horiek Udalak sustatzen ditu. Lehen biak bideratuta daude. Urbanizazio proiektua, udaberrirako edo uda hasierarako onartua izango dela uste dut. Ordurako, enpresa eraikitzaileak eraikuntzaren oinarriko proiektua aurkeztu beharko luke.

Zozketei dagokionez, iraganean epe-eren bat edo beste aipatu dugu eta azkenean ez da bete. Zaila da betetzea ez baitago dena gure esku. Gu ez gara lur-jabeak, enpresek beren erritmoak dituzte... Epe orientatiboak aipatu izan ditugu. Dena den, alkate bezala, nire asmoa babes ofizialeko eta tasatutako etxeen

zozketak legealdi honetan (2003/2007) egitea da. Gutxienez, tasatuena. Horien kontrola Udalarena da. Babes Ofizialekoen kasuan, Eusko Jaurlaritzak gehiago dauka esateko. Zoruaren lege berriak zein eragin izango duen ere ikusteke da.

Gauzak martxan daudela esango nieke zain daudenei, gauzak ondo doazela, zozketa txukun eta garantiaz egin nahi dugula. Pazientzia pixka bat eskatuko nieke. Dagoen etxebizitza eskaerari erantzuteko moduan izango gara.

Etxe zaharrak berregokitzeko asmoa

Luismari Ormaetxea alkateak aipatu digunez, azken hilabeteotan beste ekimen batzuk aztertzen aritu dira. Badira egokitze-premian diren etxeak. Igogailurik ez dutenek, bereziki, inbertsio handia eskatzen dute.

Luismari Ormaetxeak azaldu digunez, "Munalurrako komunitateetako presi-



UGARTONDOKO ETXEBIZITZA PROMOZIOA ERE AURRERA DOA.

denteekin bildu gara gaia aztertzeko. Etxebizitza horiek 35-40 urte dituzte, igogailurik ez dute eta 4-5 solairukoak dira. Udalak ez du baimenak ematera mugatu behar, inbertsio publiko aldetik apostu bat egin behar duela uste dut eta horretan gabiltza. Nahiz udalak apustua egin igogailuak ez dira jarriko bertako bizilagunen inbertsio-ahaleginik gabe. Euren artean ere ados jarri beharko dute".

Presoen senideei dirulaguntzak

NOAUA. Presoen senideei dagozkien dirulaguntzak blokeatzen ari zaretela adierazi berri du UHLk.

L. O. Hori gezur hutsa da. Herriko elkarte eta taldeek badakite dirulaguntzak banatzeko garaian, legearekin bat datorren prozedura bat jarri dela martxan. Eskaerak egiteko epea bukatu da eta eskaera horiek aztertzen hasi dira jada udal teknikariak. Epe laburrean dirulaguntzak banatuko dira. Datorren urteari begira segidan berriz jarriko da prozedura martxan, ez dadin aurtengoa berriz gertatu. Berriz ere barkamena eskatzen diet talde guztiei hainbeste itxaron behar izan dutelako. Askok bere poltsikotik jarri dute dirua ekintzak aurrera atera ahal izateko baina datorren urtean gauzak guztiz normalizatuko dira. Egoera horren barruan, beste dirulaguntza batzuk daude, sozialagoak: pobrezia, larrialdiak... Tartean, presoen senideei banatu beharrekoak, Udalak hala onartuta. Kasu honetan ere, prozedura berdintsua jarraituko dute. Ez dira beste guztiak baino gehiago, ez gutxiago. Beste guztiak dirulaguntzak jasotzeko prozedura arautu bat jarraitu badute, hauek ere berdin.

Urdaiagako hondakindegia

NOAUA. San Esteban bidean dagoen hondakindegian zer isurtzen ari dira? Azterketarik egin al da?

L. O. Hondakindegia hori itxi egin behar da. Orain arte, bukatu gabeko zerbitzu izan da. Irekita zegoen neurrian, zakar pilo bat zegoen: frigorifikoak, telebistak, gurpilak... Hori kitatzea erabaki dugu. Hondakindegia hori bukaera on bat emateko proiektu bat eskatu dugu, erabilpen publiko baterako prestatua izan dadin toki hori. Proiektu horren arabera, hondakindegia moldatu egin behar da: zabor kutsagarria kendu, hondakinak lekuz aldatu eta betelanari forma eman.

Hondakindegia Ingemarren hondakinak biltzeko izan da beti, hariak bereziki, eta hondakindegia txukun bukatzeko metro kubiko gehiago jartzeko aukera ematen zuenez baimena eman diogu. Baimena eman aurretik, hor botako ziren hondakinak neutroak - ez kutsakorrak - zirela adierazten zuen txosten bat aurkeztu ziguten, Inasmet zentro teknologikoak eginikoa. Betelana bukatzeko, metro bete sakon lur beltza ere jarriko da. Oso ondo geratuko den leku bat izango da. Baso berri batean bilakatuko da.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

N.O.I.
MIST
S L R U N , I Z ,
M K ! t m n k u r
Zu urr n , 5 - 33 1 51

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Mila Buldain, jubilatutako irakaslea: “Esku onetan geratu da Zubietako Eskola”

Belaunaldi askoren irakasle izan da Mila. Pentsa, 1979an iritsi zen Zubietara. Orain, merezitako jubilazioaz gozatzeko garaia iritsi zaio Milari. Urriaren 24a azken lan-eguna izan zuen. Biharamunean bildu ginen berarekin Donostiako Antigua auzoan.

NOAUA! Gaur ez duzu Zubietarako bidea egin.

Mila Buldain. Baina betiko orduan esnatu naiz! Oraindik bi sentsazio ezberdin ditut: poz ikaragarria daukat jada ez dudalako ardura hori. Baina, bestetik, bizitzaren azken etapari sartzen zara eta... Pentsatzen dut hori orekatuko dela nire barruan.

N. Zer egin behar duzu orain? Planik egin al duzu?

M. B. Hori galdetzen didatenean, zera erantzuten dut: “ezer ez! Hilabete pare batean ezer ez!” Gero, zer edo zer egitea gustatuko litzaidake.

N. Hobby-rik izango duzu.

M. B. Musean jokatzea, adibidez. Orain denbora gehiago izango dut. Bidaiaz ere asko gustatzen zait. Eta mendian ibiltzea ere bai. Senarra lanean ari da eta pixka bat mugatuta gaude baina asmatuko dugu zer edo zer.

N. Zein mendi duzu gustukoena.

M. B. Nafarroara askotan joaten naiz. Beruete da nire herria eta askotan bisitatu ditut.

N. Nafartarra zara, beraz.

M. B. Beasainera joan nintzen lehenbizi eta gero Donostiara etorri nintzen. Oposaketak gainditu nituenean, Zubietara hautatzeko posibilitatea izan nuen. Inguruko herrietan ere begiratu nuen baina Zubietarekin zoratuta geratu nintzen. Eskola izugarri gustatu zitzaidan. Hasiera batean Zubietara joaten nintzenean, zirrara berezia sentitzen nuen. Han inguruan garo-metak, belar-metak... Donostiatik atera, Lasarte-Oria pasa eta Zubietara paradisua iruditzen zitzaidan.



ZUBIETARRAREN AGURRA HUNKIGARRIA IZAN ZELA AITORTU DIGU MILAK.

N. Paradisu hori arriskuan al da?

M. B. Nik ez dakit zer gertatuko den. Guk eskola txiki hori beti mantendu nahi izan dugu. Ni Zubietara joan nintzenean, beste gelan Abel zegoen irakasle bezala. Oso maitatua zen. Castellongoa zela uste dut. Baina harreman oso polita zuen ikasleekin. Euskara ikasten ahalegina egiten zuen. Ni izan nintzen euskaraz irakasten hasi zen lehen irakaslea.

N. Gainontzeko irakasleekin harremanak nolakoak izan dira.

M. B. Beti pentsatu izan dut, bi irakasleren artean gaizki konpondu ezkerero ze infernua, ze miseria, ezta? Nik alde horretatik zorte handia izan dut.

N. Jubilatutako irakaslea. Esku onetan geratu al da eskola?

M. B. Esku onetan dago. Idoia eta Elo

dira oraingo irakasleak. Idoia beti prest egon da laguntzeko, niri laguntza handia eskaini dit beti. Elo ez dut horrenbeste ezagutzen baina psikomotrizitateko irakaslea faltan sumatzen genuen eta justu berak hori ikasi du.

N. Iaz, Elgetan ospatu zen Eskola Txikiaren festan omenaldia jaso zenuen.

M. B. Batapekoa izan zen. Ez nekien ezer ez. Idoiak bazekien baina ez zidan ezertxo ere esan.

Baina niretzat ederrena Zubietan egin zidaten agurra izan zen. Alamandegia oso guretzat genuen. Ikasleak, orain gutxi pasatakoak, guraso asko, aiton-amonak ere bai... Ez dut hitzik zer izan zen esateko. Maitasun giro ederra sortu zen. Eskerrak eman nahi dizkiot Zubietako herriari beti onartua sentitu naizelako. Oso gustura aritu naiz lanean.

“Administrazioarekin beti borrokan egon gara”

Eskolarik gabe nekez geratu daiteke herririk. Heine handi batean, eskola txikiaren baitan dago Zubietara moduko herrien etorkizuna. Mila Buldainek azaldu digunez, “guraso batzuk argi eta garbi daukate”.

Administrazioak, ordea, maiz izan du Zubietako eskola ixteko tentazioa. Milak argitu digunez, “Administrazioarekin beti borrokan egon gara. Eskola hauek oso

garestiak dira Administrazioarentzat. Behin Hezkuntza Saileko ikuskariak deitu zidan eta ‘aizu Mila, eskola ixtera goaz’ bota zidan. ‘Nola istera?’ erantzun nion. ‘Bapatean, ezer kontatu gabe? Aizu, gurasoekin hitz egin beharko duzue eta baita herriarekin ere, herri eskola bat da-eta’.

Mila Buldainek dioen bezala, “gurasoak beti gainean izan dira eta beraiei esker dago irekia”.

Batzarrerako deia egin du Usurbilgo Batasunak

Usurbilgo Batasunak 'Bide Eginez' prozesuaren aurkezpena egingo du azaroaren 5ean, Udarregi ikastolan. Batasunak egin duen ibilbide politikoaren balantzea egingo da lehen batzar honetan. Honen ondoren, hurrengo lau urteetarako ildo politikoa jasotzen duen txostena eztabaidatuko da.

Usurbilgo Batasunak prentsa-ohar bidez jakinarazi digunez, "Batasuna prozesuak lau urte bete ditu eta Herritar Batasunaren ohiko prozedurari jarraiki, lau urtez behineko barne-etzabaida prozesu berria jarri da martxan, 'Bide Eginez' izena hartu duen prozesua".

Urrian hasi, urtarrilean amaitu

Batasunak zehazten duenez, "prozesu honek Batasunak egin berri duen Nazio Batzarrean izan zuen abiapun-

tu, eta bertan hartutako erabakiei jarraiki, lau hilabetez luzatuko da, urrian hasita, urtarrilean bukatzeko".

Abiarazi duten prozesuan, hiru txostenen inguruko eztabaidari ekingo zaio: lehenengo txostenak, azken lau urteotako balantze politikoa jasoko du. Bigarrenak, aurrera begira Batasunak garatuko duen ildo politikoa izango du aztergai. Hirugarrenak, Batasunaren antolaketa erdua.

Azaroaren 5ean, Udarregin

Batasunak igorri digun prentsa-oharrek, azkenik, honako deia luzatzen du: "demokrazia eta berdintasunean, euskalduntasunean eta ezkerretik, Euskal Herria independentea, sozialista eta euskalduna eraikitzeko prest gauden guztioi. Guztion artean egin eta osatu behar dugu 'Bide Eginez'".

Arestian aipatu den bezala, lehen batzar hau Udarregi ikastolan egingo da, azaroaren 5ean arratsaldeko

LAB sindikatua Patxi eta Pelloekin

Urriaren 21ean, Lasarte-Oria eta Usurbilgo LAB sindikatuko delegatuak batzar berezian bildu ziren. Patxi, Pello eta gainontzeko euskal presoen aldeko idatzi bat adostu ondoren, elkarretaratze batean bildu ziren.



UHLren deialdia

Sutegi Kultur Etxearen inaugurazioa dela eta, Usurbilgo Herri Lanek (UHL) ekitaldia antolatu du azaroaren 5ean. Goizeko 11:00etan egingo da ekitaldia, Kultur Etxe aurrean. Herriko taldeei, bereziki kulturgingintzan dabilzaneiei eta herritar guztieiei parte hartzera gonbidatu die UHLk.

Masaje tailerra antolatu da Haur Eskolan

Ikasturte berriarekin batera eta pasa den urteko esperientzia errepikatu asmoz, hainbat jarduera ezberdin abiarazi ditu Haur Eskolak. Horien artean masaje tailerra, martxan jarriko den lehena.

2003, 2004 eta 2005. urteetan jaio diren haurrei zuzendua dago tailerra eta adin tarteka antolatuko da.

2003. urtean jaiotako haurrekin hasiko da tailerra. Hiru egunez luzatuko da:

- Azaroak 7 (bi talde): 16.30-18.00, 18.00-19.30.

- Azaroak 28 (bi talde): 16.30-

18.00, 18.00-19.30.

- Abenduak 12 (bi talde): 16.30-18.00, 18.00-19.30.

Izen-ematea, azaroaren 3a baino lehen

Bertan parte hartu nahi duen orok azaroaren 3a baino lehen eman behar du izena Haur Eskolan. Bulego ordutegia hau da: goizetan, 9.00etatik 13.00era. Bestela, telefono zenbaki honetara deitu: 943 37 40 61.

Tailerraren prezioa zehazteke dago oraindik, izan ere, udaletxetik jasotzen den diru laguntzaren arabera izango baita kuota.

Menopausia hizpide

Usurbilgo Guraso Eskolak menopausiari buruzko hitzaldi-sorta antolatu du. "Nola eraman eta gainditu beldur gabe?" galdera argitzen saiatuko dira hizlariak.

Azaroaren 10ean, Aitziber Aizpuru dietista izango da lehen hizlaria. **Azaroaren 17an, Miren Telleria** psikosexologa. Eta **azaroaren 24an, Izar Arregi** psikologoa.

Hitzaldi denak Sutegi Kultur Etxean izango dira, 18:30ean.

Hitzaldi hauek antolatzeko Udalaren laguntza izan du Guraso Eskolak.

Olatz Altuna, 18/98 izeneko endreduan

Duela bost urte, Audientzia Nazionaleko ziegan eduki zuten inkomunikaturik hiru egunez. Deklarazioaren ondoren, libre geratu zen baina Zumalabe Fundazioko beste kide batzuk espetxeratuak izan ziren. "Atxiloketa bera oso gogorra da. Gaur egun, ametsgaizto bat da oraindik", adierazi digu Olatzek. Hala ere, askatu ondoren herrian egin zioten ongi-etorria ez duela inoiz ahaztuko aitortu digu. Bost urte pasa dira eta, atzerapen gehiagorik ez bada, azaroaren 21ean hasiko da epaiketa. 18/98 delako endredua.

NOAUA! Kaiera Ibiltariak jende askoren babesa jaso du. Espero al zenuen?

Olatz Altuna. Hasieran, harreman erronda bat egin zen erakunde, norbanako eta eragile ezberdinekin. Hor sumatu genuen bazegoela egoneza orokortua eta zerbait egin nahiaren gogo.

Kaiera aurretik egin diren ekitaldiak ere jendetsuak izan dira (Kursaaleko aurkezpena, Bilboko komanifestazioa). Eskubide zibil eta politikoen aldeko ekimena da Kaierarena eta ikusi da zer nolako harrera izan duen.

N. Epaiketa, dena den, Madrilen

egingo da. Hango giroa bestelakoa da.

O. A. Zaila egiten zait hango giroa irudikatzea. Abokatuak han daude egunero eta aipatzen dutenez, Espainiara begira egindako epaiketa izango da. Komunikabideen aldetik izugarritzko esfortzua egiten ari dira hori irudikatzeko. Epaiketa hau euskal disidentziaren aurkako epaiketa da. Estatuak ezartzen dituen eruedetatik kanpo ateratzen diren guztiak izan daitezke atxilotuak eta espetxeratuak. Hori irudikatu nahi dute. Garrantzitsua da gure ahotsa entzunaraztea, dena den, komunikabideen aldetik izugarritzko bonbardaketa jasan beharko dugula uste dut. Esaten digutenez, komunikabideentzat jartzen ari diren azpiegiturak izugarriak dira.

OLATZ ALTUNA

"Epaiketa hasten denean, astean hiru egunetan Madrilen egon beharko dut"

N. Dirudienez, 18/98 auziaren ahozko saioa azaroaren 21an hasiko da.



AZAROAREN 21EAN HASIKO DA 18/98 AUZIKO EPAIKETA.

Hau guztia gainera kentzeko gogoia izango duzu.

O. A. Bai, hala da. Gabonak arte, auzipetu denek joan beharko dugu, astean hirutan, astelehenetik asteazkenara. Nire kezka da nola antolatu. Eguneroko dinamika hori apurtu behar duzu: lana, familia, txikia...

N. Atxilotze egunaz zein oroitzapen duzu?

O. A. Hiru egunez egon nintzen inkomunikaturik. Azkena izan nintzen deklaratu ondoren libre utzi ninduten. Fundazioko beste langileak, ordea, zazpi hilabete egin zituen kartzelan. Patronatoko kide batzuk ere espetxeratuak izan ziren.

Atxiloketa bera oso gogorra da. Gaur egun, ametsgaizto bat da oraindik.

Lan-talde bat osatu nahi da Usurbilen

Laster hasiko da epaiketa. 18/98 lsumarioan auzipetuta daudenak izango dira epaile aurretik pasako diren lehenak. Egunkariaren auzia eta beste auzi gehiago ere, jarraian hasiko lirateke. Bat eta beste, endredu honetan hiru herritar daude: Olatz Altuna, Pello Zubiria eta Joan Mari Torrealdei.

Herrian lan talde bat jarri nahi da martxan. Bake Epategi atzeko lokalean egingo da lehen bilera, datorren azaroaren 11n, ostirala, arratseko 19:30ean.

Herri mugimenduen arteko elkarlana bultzatzeko osatu zen Zumalabe Fundazioa

Zumalabe Fundazioaren helburua herri mugimenduen arteko ezagutza eta elkarlana bultzatzea da. Hainbat ekimen bideratzen ditu: Fite aldizkaria argitaratzen du, herri mugimendu eta talde ezberdinetako ezagutza bultzatzeko.

Bada formazioari eskainitako lan-arlo bat ere. Elkarguneak edo topaguneak antolatzea ere bada Fundazioaren beste zereginetako bat. 2000ko operazioa gertatu aurretik, Herri Mugimenduen Topa-

gunea antolatu zuen fundazio honek.

Garzon epailearen tesiaren arabera, ETaren esanetara zegoen Zumalabe Fundazioa. Hori esanda ere, ez zituen bere jarduerak eten. Ez zituen fundazio honen egoitzak itxi. Fundazioak bost urte hauetan bere lana egiten jarraitu du. Hala ere, zer egiten duen edota diruak nola erabiltzen dituen jakinaraztea behartuta dago fundazio hau.

Udarregi ikastolako ikasleek Nikaraguako emakumeen egoera ezagutzeko aukera izan dute

Edurne Aizpurua eta beste hainbat lagun Nikaraguan izan ziren duela urte batzuk. Nikaraguarrek eta, bereziki, bertako emakumeek bizi duten egoera gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Egun hauetan, Nikaraguako emakume bat izan da Euskal Herrian. Hainbat hitzaldi eskaini ditu eta Edurne Aizpuruari esker, hitzaldi horietako bat Udarregi ikastolan egin zen. Herrien arteko elkar-tasunaz jabetzeko aukera izan zuten ikasleek.

Nikaraguako El Viejo herrian, Chinandega herrialdean egiten du lan APADEIM erakundeak. Bertako kide da gure solaskidea, Ana Celia Tercero, Iliana bezala ezaguna den nikaraguarra. Duela zazpi urte, Mugen Gaietik Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE) eta APADEIM nikaraguar erakundeak elkarlanari ekin zioten: alfabetizazio programak martxan jarritz, genero eskubideen alde lan eginez, nekazari-proiektuak garatuz...

Mugen Gaietik eta Donostiako Udalarri esker, Nikaraguitik hona etortzeko aukera izan du Ilianak. Villabonan, Usurbilen eta Donostian hainbat hitzaldi eskaini ditu. Udarregi ikastolako ikasleekin izandako solasaldiaren ondoren, NOAUA!rekin bildu zen Iliana.



IRUDIAN, MUGEN GAIETIK ELKARTEKO KOTE, ILIANA HIZLARIA ETA MARLENE GONZALEZ, USURBILLEN BIZI DEN NIKARAGUARRA.

N. Emakumeen alde lan egitea hain zaila al da Nikaraguan?

I. Era honetako proiektuak garatzea zaila da. Alfabetizazioaz gain, emakume hauen biziraupena ziurtatzeko proiektuak garatzen ditugu. Berezi, nekazari-tzari lotutakoak. Bestetik, Gobernuz Kanpoko Erakunde gisa lan egiteko aha-legin handia egin behar izan dugu. Zaila izan zen, lanean hasi eta lau urtera lortu genuen erakunde izaera.

Bestetik, El Viejoko udaletxetik ez dugu dirulaguntzarik jasotzen. Nazioko

Gobernuak, gainera, ez ditu nekazari lurraldeetako herritarrak kontuan hartzen. Baliabide ekonomikoak Mugen Gaietik-en moduko GKEen bidez iristen zaizkigu.

ILIANA, NIKARAGUARRA

“Gure herrian emakumea desabantailan egon da beti”

N. Ezberdintasun handiak al daude gizon eta emakumeen artean?

I. Emakumea beti desabantailan egon da. Familiak arduratu dira, eta ez dute eskolara joateko aukerarik izan. Mutilek eskolara joateko aukera gahiago izan dute. Nekazari lurraldeetan, analfabetizazioa %40a iristen da. Desnutrizio maila altua da, osasun zerbitzuak urriak dira. Zonalde batzuetan ez da osasun zerbitzurik.

N. Bukatzeko, Usurbildik zein oroitzen zarete?

I. Iritsi nintzenetik hitzaldi ugari eskaini ditut ikastetxe ezberdinetan. Baina hemengo ikasleek, bereziki, interes handia azaldu dute. Galdera asko egin dizkidate eta oso aberasgarria izan da hitzaldia. Elkartasun harrobi handia duzue Usurbilen. Laguntzeko sentiberatasun hori badute.

Marlene Gonzalez, 30 urtez gure artean

Iliana ez zen Udarregi hitzaldian izan zen nikaraguar bakarra. Berarekin batera Marlene Gonzalez topatu genuen. Usurbilen azken 30 urteak egin dituen arren, ez du bere sorterrira ahaztu. Marlenek hitzaldiaren ondoren azaldu zigunez, “1977an etorri nintzen hona. Nikaraguan ezagutu nuen familia batekin etorri nintzen. Horregatik, klimara, hizkuntza-

ra egokitzea errazagoa izan zen niretzat”.

Lehen urteak Errenterian egin zituen. Gero euskaldun bat ezagutu, ezkondu eta Usurbila etorri zen bizitzera, 1979an.

Marlenek oraindik harremanak mantentzen ditu Nikaraguako familiarekin.

Marleneren esanetan, Euskal Herria eta Nikaragua arteko “harremanak mantentzea poz-



garria da. Mugen Gaietik bezala, erakunde gehiago ari dira Nikaraguren alde lanean eta programa ezberdinak daude martxan”.

Badator Kultur Astea

Azaroarekin batera iritsi ohi da NOAUAK antolatzen duen Kultur Astea. Hasteko, komedia dibertigarri batekin gozatzeko aukera izango dugu. Lakrikun Antzerki Taldeak azaroaren 10ean eskainiko duen "Greban gaude" emanaldiarekin hasiko da Kultur Astea.

Antzerkia, zinea, abentura eta musika izango dira Kultur Astearen osagai nagusiak.

Ekitaldi denak doanekoak izango dira, kontzertua izan ezik. Mikel Urdangarinek eskainiko duen jaialdirako sarrera merkeagoa izango da NOAUako bazkidearentzat. Hori bai, bazkideak NOAUako bulegora etorri beharko dute sarrera erostera (bazkide bakoitzeko sarrera bana).



Azaroak 10, osteguna 20:00etan, Kultur Etxean

ANTZERKIA. "Greban gaude" izeneko komedia eskainiko du Lakrikun Antzerki Taldeak. Idoia Uranga, Alaitz Olaizola eta Gurutze Eizmendi antzezleen saioa dibertigarria da oso. Sarrera doan.

Ekitaldiak, banan bana

Azaroak 15, asteartea
20:00etan, Kultur Etxean



FILM LABURRAK

Lehen aldiz, film laburrak ikusteko aukera izango dugu. Bost izango dira eskainiko diren laburmetraiak: "Ostertz", "Lepokoa", "Amnesiak", "El salto de Beamon" eta "Amuak".

Sarrera doan.

Azaroak 17, osteguna
20:00etan, Kultur Etxean



BIDEO EMANALDIA

Asia erdiguneko mendebaldean aurkitzen da Khan Tengri mendia. Koldo Huegun han izan zen udan. Bideo emanaldi baten bidez espedizioaren berri izango dugu.

Sarrera doan.

Azaroak 19, larunbata
22:30ean, Kiroldegian



MIKEL URDANGARIN

"Dana" izeneko disko berria aurkeztera etorriko da Mikel Urdangarin. Sarrerak jada salgai daude Bentan, Txirristran eta NOAUAn. Prezioa, 10 euro. NOAUako bazkideentzat, 8 euro (bazkideak NOAUatik pasa sarrera bila).



Kima

MASAJE LEKUA


Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97




I n t e r n e t n u n - e r r u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

Sagardotegian izan gara



**EA SAGARRA ONDO MARGOTZEN
ASMATZEN DUZUN!**

Doan BERRIArekin

Pirritx eta Porrotx

familien karta-jokoa



Azaroaren 5etik aurrera

berria

Hozko irtegiaren auzian ez dela eskubiderik urratu esan du Europak

Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25	15.00	15.20	15.25	15.45
08.00		08.25**		15.40		16.05	16.25
08.00	08.20	08.25	08.45	16.00	16.20	16.25	16.45
08.40		09.05	09.25	16.40		17.05	17.25
09.00	09.20	09.30		17.00	17.20	17.25	17.45
09.00	09.20	09.25	09.45	17.40		18.05	18.25
09.40		10.05	10.25	18.00	18.20	18.30	
10.00	10.20	10.25	10.45	18.00	18.20	18.25	18.45
10.40		11.05	11.25	18.40		19.05	19.25
11.00	11.20	11.25	11.45	19.00	19.20	19.25**	
11.40		12.05	12.25	19.00	19.20	19.25	19.45
12.00	12.20	12.25**		19.40		20.05	20.25
12.00	12.20	12.25	12.45	20.00	20.20	20.30	
12.40		13.05	13.25	20.00	20.20	20.25	20.45#
13.00	13.20	13.30		21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.25	13.45 #	21.00	21.20	21.25	21.45
13.40		14.05	14.25	22.15	22.35	22.45	23.05
14.00	14.20	14.30**		22.00	22.20	22.25	22.45
14.00	14.20	14.25	14.45	22.30	22.50	23.05	23.15
14.40		15.05	15.25	00:00		00:25	00:45
15.00	15.20	15.30		02:00		02:25	02:45
				04:00		04:25	04:45
				06:00		06:25	06:45

■ Soilik larunbata gauzez # Larunbata, Orion autobus aldatuta Aiaira
 ■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiaraino
 Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30	14.45	14.30	14.35	15.00
06.45	07.05	07.10	07.30	14.45	15.05		15.30
07.15	07.35		08.00	14.45	15.05	15.15	15.40
07.45	08.05	08.30		15.45	15.30	15.35	15.55*
07.45	08.05	08.15	08.40	15.45	16.05		16.30
08.15	08.35		09.00	15.45	16.05	16.15	16.40
08.45	09.05	09.30			16.30	16.35	17.00
08.45	09.05	09.15	09.40	16.45	17.05		17.30
	09.30	09.35	10.00*	16.45	17.05	17.15	17.40
09.45	10.05		10.30	17.45	18.05		18.30
09.45	10.05	10.15	10.40	17.45	18.05	18.15	18.40
	10.30	10.35	11.00	18.45	19.05		19.30
10.45	11.05		11.30	18.45	19.05	19.15	19.40
10.45	11.05	11.15	11.40		19.30	19.35	20.00
11.45	12.05		12.30	19.45	20.05		20.30
11.45	12.05	12.15	12.40	19.45	20.05	20.15	20.40
12.45	13.05		13.30	20.45	21.05		21.30
12.45	13.05	13.15	13.40	20.45	21.05	21.15	21.40
	13.30	13.35	13.55*	21.15	21.35	21.40	22.00
13.45	14.05		14.30	21.45	22.05	22.15	22.40
13.45	14.05	14.15	14.40	22.15	23.35		00.00
				01.15	01.35		02.00
				03.15	03.35		04.00
				05.15	05.35		06.00

*Aiatik dator ■ Asteburutan, jaietan
 ■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauzez
 Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10:03	10:20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

*Astegunetan bakarrik #Ez da Usurbilen geratzen
 Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 3, osteguna
 Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 4, ostirala
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 5, larunbata
 Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 6, igandea
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 7, astelehena
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 8, asteartea
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 9, asteazkena
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 10, osteguna
 Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 11, ostirala
 Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 12, larunbata
 Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 13, igandea
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 14, astelehena
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 15, asteartea
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 16, asteazkena
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 17, osteguna
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 18, ostirala
 Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 19, larunbata
 Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 20, igandea
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hermanin egingo dira.
 Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
 Zubieta-Donostia
 7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
 Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazaatik)
 7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
 Zubieta-Donostia
 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
 Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazaatik)
 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
 Zubieta-Donostia
 11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
 Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazaatik)
 11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan.
 T Autobus aldatuta beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Azaroa					
As.	Ar.	Oz.	Ost.	La.	Ig.
	1	2	3	4	5
	6	7	8	9	10
	11	12	13	14	15
	16	17	18	19	20
	21	22	23	24	25
	26	27	28	29	30
	31				

Hurrengo alca ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde)..... 36 38 95
- Oiardo kirolegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak !!

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

Kotxea salgai dugu, R-19, SS-AF Matrikuladuna, 600 euro. ITVa Irailan pasata. 655720666/ 657711335.

- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. Interesatuak deitu: 676636038.
- Autokarabana salgai, 4-5 pertsonentzat. Ford Transit 2.5D Riviera. Ongi zaindua (nagusia mekanikoa da eta garajea lo egiten du). 13.000 euro. Tlfnoa. 653714970.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko: 943 360 245 / 670 067 551.
- Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 36 57 37.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Emakume euskaldun bat bilatzen ari gara etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Ordutegia eta baldintzak adosteko. 943 376 688 (Urbilen ondoan).
- Pertsona bat behar da 4 eta 7 urteko umeak zaintzeko. 943372224 Kristina (gauze deitu).
- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu: 943361991.
- Emakume euskaldun bat behar dugu irailatik aurrera lanean hasteko. Goizeko 10:30tatik 14:30tara etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 662145584.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- "Valentino" markako betaurreko graduatu batzuk aurkitu dira funda gorri batean Puntapax bidean. Galdu dituen pasa dadila Noaua!ko egoitzatik
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. Interesatuak 657633461 telefonora deitu.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Peugeot 306 Break salgai. 2000-HDI. Matrikula, BPF (2001 azaroa). Garajea egon da beti. Prezioa: 9.000 euro. Telefonoa: 636 36 49 42.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodea barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 / 665 749 615 gauze.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan


Zorionak Oihana!

26ak ere iritsi zaizkizula! Urteek ez dutela barkatzen, eh? Sumatu al den karga berezirik? Igandean ondo pasako zenuela espero dugu, izan ere, aldamenen dituzun bi gerrera horiekin zaila da gaizki pasatzea... (kar, kar, kar...) Beno prexioxa, zure erronda horren zain gaude (ez zaizu merkea aterako!), besarkada amaigabe eta iraultzaile bat, zure koadrila. EUSKAL PRESOK ETXERA!



Zorionak Unax, Mikel eta Itxaso!

Bost urte egingo dituzue azaroaren 7an, 8an eta 10ean. Zorionak eta muxu handi bana gurasoen, etxekoen eta lagunuen partez!



Zorionak Zuriñe eta Itxaso!

Zuriñek urriaren 28an egin zituen 10 urte eta Itxasok azaroaren 10ean egingo ditu 5. Muxu handi bat etxeko bi panpoxei denen partez.



Zorionak Markel!

Azaroaren 5ean gure etxeko txikiak urtebete egingo du. Etxeko guztien partez eta muxu handi bat guraso eta arreben partez.



Zorionak Aingeru!

Azaroaren 3an bi urte bete zenituen. Muxu handi bat eta zorionak!



Larazaintza
gortak
Laresak
karroak
Landaresak

URTINEA
urtinea@euskalnet.net

SAN ESTEBAN
943 362 055
943 366 054 fax

GORRITI
edaritegia

kafe berezia!

SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

Agenda !!

Azaroak 7, astelehena

- Odola emateko aukera berria.
Usurbilgo Osasun Etxean.

Azaroak 10/19

- NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu duen Kultur Astea (egitaraua 16. orrian).

Tomas Urtzainkiren hitzaldia Udarregin

Nafartarrak taldeak hitzaldi berri bat antolatu du. Honakoan, Tomas Urtzainki historiagileak "Subordinación o soberanía" hitzaldia eskainiko du azaroaren 3an, arratsaldeko 19:30ean, Udarregi ikastolan.

Egin kontu !!

Aloze eta Sohütako ikastolen aldeko elkartasun otarrak

Iparaldeko egoera dela eta, beharrak asetzea zeregin erraza ez denez, Alozeko Basabürüko ikastola eta Sohütako Eperra ikastolako gurasoek ondoko proposamen goxoa egiten digute hurbil ditugun Gabon eta Olentzero egunei begira. Otarrak hauek erosiz, ikastola hauek lagunduko ditugu.

Irati produktuen otarra honela osatzen da: ardi gazna (kg 1), eztia (500 gramo), "Paté" ahate gibelarekin (200 gramo), Bixkotx artesenal poltsa bat eta Züberoako patxarana. Otarrak hauen prezioa: 48 euro.



Lagun zuberotarrek esan bezala: "Züen parte hartzean bermatzen gira, eta esperantza dügü hebengo mozkina ontsa gozatüko dütüzüela".

Otarrak hauek eskuratu nahi duenak aldeztu aurretik izena eman dezala Txirristran edo NOAUAKo egoitzan.

ARDI BELTZ GARAGARDOTEGIA



- * Txekor saiheski bereziak
- * Txerri hanka bereziak
- * Plater konbinatuak
- * Eguneroko menua 7,9€ (kaferik gabe)
- * Asteburuko menua 10,5€ (kaferik gabe)
- * Bokatak eta razioak
- * Inportatutako garagardoak.

AZAROAK 4
HIP-HOP FESTA
00.00TAN

DEJOTAS DZ & SYR
+
DADDY JEFF

AZAROAK 25
KONTZERTUA

Puntapax 12 • USURBIL • ☎ 943 367 054



N HILUZUKIN STEGIN ZUE ETXEN

ZE EH UZU
Lrt rtz .

N L EGITEN
Jnrtlnrhnrkr lz.

ZE L TZEN
Zrrmurrztzn,zur lrt rkkn st lrtuk uzu.

ESKINTZEN IZUGU

- Knstlu t.
- Knstzk skuluru .
- Knst tnkstkhz l-t lrr .
- Urt tk hlkulrtz zrtzu .



nm z t z t sk tuzur
kn st lu nk
t l f n z n kr tuz

3 7 2



Uztailaren 14
2011

S N M K S-EK M NK MUNITE
M NC MUNI ES N M C S
www. lrtk .1 t/s 1 m rc s

gremioen gida

igeltseritza

JOSE AIZPURUA
UNANUE



Pintore k.1-3A Obuba k.29
Lasarte-Oria Astasu
943 36 17 83 943 696852

URDANTZI

943 361 439
649 435 475
649 435 476

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470

urki-mitxe@eusklanet.net

JOSUE
ARANZAZISTROKI

Juan Jose enea 6
Kalezar
943 360 550
606 372 105

aroztegiak



ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
Tfnoa. 943 361 448
Faxa 943 366 945
Osinalde Industrialdea
Errotaberri 11

ANTONIO
URRUZOLA

Tfnoa. 943 362 664
Faxa 943 374 002

Asteasuain Industrialdea 3

BEREZIARTUA
S.L.

egurra eta
egurra-aluminiozko
lehoak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Salsamendi, Arcoi Inaroi
tfnoa. 943 362 664
faxa 943 374 002
Barren Etxe kalea
ZUBIETA

iturgintza

JOSETXO
IKATZETA



687 951 225

LATAILLADE



gasa, berogintza
klimatizazioak eta
manienimendua
609 888 021

PORTULARRUME

banuko altzairuak
manparak

943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

iturgintza

JAVIER ORBEGOZO



gasa - berokuntza

659 602 789
Enrika Txiki 13, 3. esk

pinturak

andoni
MARCOAS

605 702 517

Arantzale p. 8-2º

RAMON
BARCENILLA

papereztatzea
gotele
pikor pintura...
629 460 966

FERNANDO
FINTURAK

enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 019

eskaioiak

EUGENIO
NORIEGA

pladurra
teilatu modularrak
dekorazioak

943 365 665
616 926 025
Erdiko kalca 12

elektzitate

IZAGUIRRE

943 365 095
609 068 111
Goiz Argi etxea 37
Kalezar

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak
konponketak

943 361 380
629 272 859
Bordaberri 5 behe

gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321

"publizitatea@noava.com"